

UZTARITZE – TOLOSA SENIDETZEA

2014/11/22ko BILKURA PUBLIKOA

- ✓ **Senidetzearen historiaren aurkezpen laburra**
- ✓ **Galdeketaren emaitzen aurkezpena**
- ✓ **Senidetze egitasmoaren ardatz nagusiak**
- ✓ **« Comité de jumelage » elkartearen ez ohiko biltzar nagusia**

AURKEZPEN HISTORIKOA

- Uztaritze eta Tolosaren arteko senidetzea 1989an abian ezarria izan zen, Bernard AUROY auzapez zelarik. Tipologia aski desberdina baldin bada ere bi hirien artean, aitzinera ekarriak izan ziren puntu bateragarriak ziren Tolosa eta Uztaritze haien probintzietako hiri nagusi historikoak izan zirela, bai eta euskarari eman garrantzia, elkarte biziko une azkar bat eta aberastasuna irudikatzen duen ihauteriari esker.

AURKEZPEN HISTORIKOA

- Lehen urteetan, herriko etxea / senidetzearen batzordeak lagundu trukatzeko batzuk (harremanetan sartzeko + diruztatzea) gertatu dira elkarten artean (Labourdins, pilota, errugbia, kolegioa, merkaturia, etab.) bai eta egun handi bat Tolosan hautetsiak gomitatuen izan zirelarik baina mobilizatu ziren elkarteei harrera txarra. Hortik eta garai hartako testuinguru politikoa dela medio, apurka desadostasunak eta bereizketak sortu ziren abertzale eta hautetsien artean, eta nehor ez da gehiago senidetzeaz axolatu.

GALDEKETAREN EMAITZAK

Zergaitik galdeketa ?

- Herriko hauteskundeen karietara, Uztaritze Bai !-k bere programan, 1989an Uztaritze eta Tolosaren artean abian ezarria izan eta 20 urtez lo egon zen senidetzea, berriz indarrean ezartzeko gogoia adierazi zuen. Gaur egungo herriko kontseiluak beraz berpizteko xedea du iruditzen baitzaigu trukatzeko tresna interesgarria dela kultur, ekonomia, hizkuntza, instituzio, kultu, hezkuntza irakaskuntza eta turismo arloetan.

GALDEKETAREN EMAITZAK

Zergaitik galdeketa ?

- Horretarako, egitasmoaren egokitasuna eta egingarritasuna ebaluatu behar izan ditugu, eta erabaki dugu beraz galdetegi bat egitura, enpresa eta elkarte guziei helaraztea Uztariztarren igurikatze eta beharrak zehazteko, hots **diagnostiko** bat egiteko.

GALDEKETAREN EMAITZAK

Erantzunen kopurua:

- **192** galdetegi igorriak izan zaizkie enpresa eta egitura desberdinei > **20** erantzun.
- **95** galdetegi igorriak izan zaizkie elkarteei > **14** erantzun.
- **15** galdetegi itzuli zaizkigu helbide txarra zela eta.

11.8% erantzun galdetegiari

GALDEKETAREN EMAITZAK :

Erantzun duten egituren zerrenda

1. Elkarteak

- a. Kapito Harri (pilota)
- b. Herri soinu (3 festibalaren antolatzaile: Hartzaro, Hartza altzoan, Herri Uzta. Kultur garapena, MDT sorkuntza hedapenak. 8 elkarte kide, momentuko soldatadunik ez).
- c. Errobiko kaskarotak (euskal dantza (haurrak eta helduak), musika, inauteri, Hartzaro festibala, etab.)
- d. Izengabea
- e. ASCA (gim, dantza modernoa, step, afrikar dantza, perkusioa, judo jarduerak biltzen dituen elkarte. 350 kide, 3 soldatadun).
- f. Lapurtarren biltzarra (LB egunaren antolatzailea)
- g. Eliza Hegi animazio batzordea (kojabetza elkarte)
- h. Haizea (gaurko musika irakaskuntza, Musikaseko adarra (Errobi), 4 soldatadun, kontzertuak, etab.)
- i. AEK – Uztaritzeko gau eskola
- j. Gerlari ohien batasuna (gerlari ohien arteko elkartasuna mantendu, gure hilen oroitzapena iraunarazi, ospakizun oroigarri guzietan parte hartu).
- k. Eskuz esku (3. adineko kluba, 135 kide, soldatadun bat)
- l. Les Labourdins Uztaritz / Uztaritzeko Lapurtarrak (Futbol taldea, 240 lizentziadun, idazkari enplegatu 1, 25 benebolo)
- m. Souvenir français / Frantses Oroitzapena (belaunaldiei oroimen ond oriotasuna begiratu, oroitu eta transmititu, ikerketk Euskal Herrian, 20 benebolo)
- n. Les labourdins / Lapurtarrak (musika, 120 kide, animazio/kontzertu/bestak)

GALDEKETAREN EMAITZAK :

Erantzun duten egituren zerrenda

1. Enpresa / egitura desberdinak

- a. Bereterraenea (arrotz logela alokatze)
- b. Allande MUJICA (artzaina)
- c. Dionysos conseil (arno, automobila edo luxu mundurako gertakizun sorkuntzarako laguntza / antolakuntza)
- d. SNC R eta S Tabac Presse Loto
- e. Hemengo (etxaldeko mozkin salmenta)
- f. DEKRA (Lapurdiko Auto Kontrola Zentroa)
- g. IF (artista, marrazkilaria, irudigilea + grafista independentea, web gunea)
- h. Eliane MENDIBOURE (arkitektoa)
- i. VOIESURES (taxi, garraioa nornahik eskaturik)
- j. TOFFOLO (eraikuntza enpresa orokorra)
- k. SCOP Olaberria (plastiko eta silikona injekziorako molde ikerketa eta gauzatzea)
- l. IRASTORZA jardin (baratze antolaketa, mantenua)
- m. GURE IRRATIA (euskal irratia)
- n. SARL Transports NARBATS – JAUREGUY / NARBATS – JAUREGUY Garraioak ESM (salgaien garraio publikoa)
- o. URRASKA haurtzaindegia (0 eta 3 urte arteko haurren harrera)
- p. SARL Arrantz Terrassement / Arrantz Lur Berdintze Lan ESM
- q. SARL La maison des Labourdins/Lapurtarren Etxea ESM (Lapurtar motako ohidurazko euskal bizitegiaren museoa)

GALDEKETAREN EMAITZAK :

Erantzun duten egituren zerrenda

1. Eskola zentroak:

- a. Saint François Xavier kolegioa (kolegio pribatu elebiduna euskaraz, espainol ikasleei harrera)
- b. Saint Vincent eskola (eskola pribatu elebiduna 199 ikasle, 3 soldatadun, 9 irakasle)
- c. Saint Joseph lizeoa

Erantzunen kopurua:

- **192** galdetegi igorriak izan zaizkie enpresa eta egitura desberdinei > **20 erantzun**.
- **95** galdetegi igorriak izan zaizkie elkarteei > **14 erantzun**.
- **15** galdetegi itzuli zaizkigu helbide txarra zela eta.

%11.8 erantzun galdetegiari.

GALDEKETAREN EMAITZAK :

Elkarteak (14)

	1. Galdera		2. Galdera	3. Galdera	4. Galdera	5. Galdera	6. Galdera	7. Galdera	8. Galdera	
Elkarteak 14	Bai: 14 %100	Ez: 0	Bai: 11 %78.6	Bai: 10 %71.4	Turismoa: 2 = %7.1 Ekonomia: 1 = %3.6 Ingurumena: 1 = %3.6 Kultura: 10 = %35.7 Hezkuntza: 3 = %10.7 Gazteria: 5 = %17.9 Kirola: 3 = %10.7 Laborantza: 0 Soziala: 0 Kultua: 0 Mediku-soziala: 0 Irakaskuntza: 2 = %7.1 Hizuntza: 1 = %3.6 Beste: Historia eta trukatzeak	Noizbehinkakoa: 1 %7.1 Iraunkorra: 8 %57.1 Deus: 3 %21.5 Ez dakit: 2 %14.3	Bai: 9 %64.2 Ez: 0 Deus: 3 %21.5 Ikustekoa: 2 %14.3	Bai: 5 %35.7 Ez: 2 %14.3 Deus: 5 %35.7 Ikustekoa: 2 %14.3	Bai: 11 %78.6 Ez: 0 Deus: 3 %21.4	
	a) Bai: 8 %57.1 Ez: 6 %42.9		Ez: 0 Deus: 3 %21.4	Ez: 0 Deus: 4 %28.6						
	b) Bai: 0 Ez: 7 %87.5 Deus: 1 %12.5									

GALDEKETAREN EMAITZAK :

Enpresak (17)

1. Galdera	2. Galdera	3. Galdera	4. Galdera	5. Galdera	6. Galdera	7. Galdera	8. Galdera	
Bai: 13 %76.5	Ez: 3 %17.6	Bai: 10 %58.8	Bai: 10 %58.8	Turismoa: 7 = %14.3 Ekonomia: 7 = %14.3	Noizbehinkakoa: 6 %35.3	Bai: 11 %64.7	Bai: 3 %17.6	Bai: 13 %76.5
a) Bai: 2 %11.77	Deus: 1 %5.9	Ez: 5 %29.4	Ez: 4 %23.5	Ingurumena: 2 = %4.1	Iraunkorra: 4 %23.5	Ez: 1 %5.9	Ez: 11 %64.7	Ez: 1 %5.9
Ez:13 %76.47		Deus: 1 %5.9	Deus: 3 %17.6	Kultura: 9 = %18.4	Deus: 7 %41.2	Deus: 5 %29.4	Deus: 3 %17.6	Deus: 3 %17.6
Deus: 2 %11.76		Ez dakit: 1 %5.9		Hezkuntza: 3 = %6.1				
b) Bai: 0 Ez: 2 %100 *				Gazteria: 3 = %6.1				
				Kirola: 3 = %6.1				
				Laborantza** : 4 = %8.2				
				Soziala: 1 = %2				
				Kultua: 1 = %2				
				Mediku-soziala: 1 = %2				
				Irakaskuntza: 3 = %6.1				
				Hizkuntza: 5 = %10.2				
				Beste: Bertako ondarea + lehen haurtzaroaren harrera				

GALDEKETAREN EMAITZAK :

Ikastetxeak (3)

1. Galdera	2. Galdera	3. Galdera	4. Galdera	5. Galdera	6. Galdera	7. Galdera	8. Galdera
Bai: 3 %100	Ez: 0	Bai: 3 %100	Turismoa: 0 Ekonomia: 1 %5.9	Noizbehinkakoa: 2*	Bai: 3 %100	Bai: 2 %66.7	Bai: 3 %100
a) Bai: 0 Ez: 3 %100	Ez: 0	Ez: 0	Ingurumena: 1 = %5.9	Iraunkorra: 2	Ez: 0	Ez: 0	Ez: 0
b) Bai: Ez:	Deus: 0	Deus: 0	Kultura: 3 = %17.6	Deus: 0	Deus: 0	Deus: 1 %33.3	Deus: 0
			Hezkuntza: 3 = %17.6	*egitasmoaren arabera			
			gazteria: 2 = %11.8				
			Kirola: 0				
			Labirantza: 0				
			Soziala: 0				
			Kultua: 1 = %5.9				
			Mediku-soziala: 0				
			Irakaskuntza: 3 = %17.6				
			Hizkuntza: 3 = %17.6				
			Beste:				

GALDEKETAREN EMAITZAK

1. Galdera	2. Galdera	3. Galdera	4. Galdera	5. Galdera	6. Galdera	7. Galdera	8. Galdera
Bai: 30 %88.2	Ez: 3 %8.8	Bai: 23 %67.6	Turismoa: 9 %9.7	Noizbehinkakoa: 7 %20.6	Bai: 23 %67.6	Bai: 10 %29.4	Bai: 27 %79.4
a) Bai: 11 %36.7	Deus: 1 %3	Ez: 5 %14.7	Ekonomia: 9 %9.7	Iraunkorra: 15 %44.1	Ez: 1 %3	Ez: 13 %38.2	Ez: 1 %3
Ez: 19 %63.3		Deus: 4 %11.8	Ingurumena: 4 %4.3	Deus: 10 %29.4	Deus: 8 %23.5	Deus: 9 %26.5	Deus: 6 %17.6
b) Bai: 0		Ez dakit: 1 %2.9	Kultura: 22 %23.7	Ez dakit: 2 %5.9	Ikustekoa: 2 %5.9	Ikustekoa: 2 %5.9	
Ez: 9 %81.8			Hezkuntza: 8 %8.6				
Deus: 2 %18.2			Gazteria: 10 %10.7				
			Kirola: 6 %6.4				
			Laborantza: 4 %4.3				
			Soziala: 1 %1.1				
			Kultua: 2 %2.1				
			Mediku-soziala: 1 %1.1				
			Irakaskuntza: 8 %8.6				
			Hizkuntza: 9 %9.7				
			Beste:				

GALDEKETAREN EMAITZAK

Azterketa lasterra

- 1.galdera : gehiengo batek badu senidetzearen berri (%88.2), baina gutiengo batek (%36.7) parte hartu du trukatzeko batean. Aldiz, gertatu diren trukatzeko gehiago egin dira elkarte munduan (%57.1) enpresakoan baino (%11.8). Hala ere, bi kasuetan ez dute iraun kasu gehienetan (%81.8). Emaitza hauek aitzinera ekartzen dute **senidetzea zinez lotan utzia izan dela hainbat urteta**.

GALDEKETAREN EMAITZAK

Azterketa lasterra

- 2. Galdera: %70.6 pentsatzen dute senidetzea probetxugarria gerta dakiekela, eta gehitu komentarioak, haien jarduerarekin lotura duten zehaztasunak dira beti. **Interesa zinez agertzen da beraz!**
- 3. Galdera: %67.6 beraiekin trukatzekak buru ditzaketen Tolosako egituren berri izan nahi dute.

GALDEKETAREN EMAITZAK

Azterketa lasterra

- 4. Galdera: proposatu egitasmo tematika desberdinen artean, **kultura (%23.7)**, **gazteria (%10.7)**, **turismoa (%9.7)**, **ekonomia (%9.7)**, **hizkuntza (%9.7)**, **hezkuntza eta irakaskuntza (8.6%)** dira orokorki gehienik ateratzen.
 - **Enpresen** munduan, lehentasuna kulturari (%18.4), turismoari (%14.3) eta ekonomiari (%14.3) emana izan zaie.
 - **Elkarte** munduan, lehentasuna kulturari (%35.7), gazteriari (%17.9), hezkuntzari (%10.7) eta kirolari (%10.7) emana izan zaie.
 - **Eskola** munduan, lehentasuna kulturari (%17.6), hezkuntzari (%17.6), irakaskuntzari (%17.6), hizkuntzari (%17.6) emana izan zaie.

GALDEKETAREN EMAITZAK

Azterketa lasterra

- 5. Galdera: egitasmoaren iraupenari buruz, enpresen mailan, gehiengoa noizbehinkakoan kokatzen da (%35.3 + %41.2 erantzunik gabe) argudio nagusia izanki haien jarduerak denbora guti uzten diela, elkarte munduan proiektzioak (%57.1) iraupen luzeagoarekin egiten direlarik.
- 6. Galdera: gehiengoak gustukoa luke **senidetze egun bat** antolatzen balitz (%67.6).

GALDEKETAREN EMAITZAK

Azterketa lasterra

- 7. Galdera: « senidetze batzordea » elkartea berriz bultzatu, baiezko erantzun gehiago elkarteen partetik (%35.7 jakinez %35.7 ez duela deus erantzun) enpresetatik baino (denbora faktorea eta libro izatea aitzinera ekarriak izan dira).
- 8. Galdera: Tolosa eta senidetzearen jarduerari dagozkien **informazioak** eskuratzearen alde direnen gehiengo zabal bat (%79.4) ... gogoetatu beharreko **komunikazio tresnak**.

GALDEKETAREN EMAITZAK

Garatuak izan diren puntu batzuk

- belaunaldi desberdinen arteko trukatzeko gogoia azpimarratua da (behin);
- euskararen garrantzia (2 aldiz), hizkuntza trukatzeko bi aldiz kulturarekin lotuak. Ohargarria da proposatu bi tematiketan hizkuntza laukia euskarari lotua zela.
- espainol egiturekin partaidetza indarrean emateko gogoia;

GALDEKETAREN EMAITZAK

Garatuak izan diren puntu batzuk

- bi hirien arteko pertsona garraio proposamena;
- lan munduan lanbidezko loturak eraikitzeko gogoia (hezkuntza teknikoa, enpresa sortzea, ekintza ekonomiko plan baten ikuspuntuen partekatzea) Hego Euskal Herriarekin, elkar ezagutzen eta lan egiten ikasi;
- aterpetze proposamena eta gastronomia trukatzak (sagarnoa);

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- **Senidetzearen helburuak :**
 - Elkarte, enpresa, ikastetxe eta erakunde desberdinen arteko trukaketak bultzatu, batez ere, ondoko sailetan: **kultura, turismoa, ekonomia**, ingurumena/garapen iraunkorra, **hezkuntza, gazteria**, kirola, laborantza, soziala, kultura, medikuntza eta gizartea, **hizkuntza** etab...
 - **Gure herriaren garapena eta Euskal Herriaren eraikuntzaren** ikuspuntutik > *Udalbiltzarekin* elkarlanean, « Euskal Herria hubiltzen » Euskal Herriko herrien arteko sarete lanetan laguntza eskaintzeko sortu hurbilpen plana baliatuz, zeinek, senditze egitasmoak laguntzen ahal dituen.

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- **Senidetze moldeak:** senidetzea sustatzeko egituraren hautaketa garrantzitsua da eta bi molde nagusitan burutu daiteke: **Herriko etxearena den egitura edo elkarte izaerako egitura.**

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- Senidetze esperientzian eraman 25 urteek, **elkarte izaerako egitura** mantentzearen beharra (nahiz eta ez den biziki pratikoan izan), eta Uztariztarren parte hartzearen garrantzia (herriko etxeko talde aldaketen gaindi, senidetzearen iraunkortasuna bermatzen baitute) agerian utzi dute.

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- Elkarteak, herritarren **sentsibilizatzea** hobea ahalbidetzen du, elkarte biziaren bidez, borondresen **parte hartze** hobearen bidez eta mota orotako finantzaketa moldeak eskaintzen ditu. *Garrantzitsua da zehaztea Tolosako herriko etxeak urrats berdina bultzatzeko prest dela bertako elkarte eta egiturekin, batzordeen arteko trukaketa zuzena plantan ezartzeko.*

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- Haatik, **herriko etxearen** parte hartzea ere funtsezkoa da, eta biak ez dira bateraezinak. Axuant bat eta ordezkari bat senidetze politikaren eta orientabideen bermatzaileak dira, eta herriko etxeko batzordearen gainean oinarritzen dira (momentuz herriko biltzarreko ordezkariez soilik osatua... batzordeko kideeri irekitzeko proposamena).

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- Molde horrek alderdi baikorrak ainitz baldin baditu ere, **zailtasun nagusia herria eta elkartearen arteko harremanetan** gertatu daiteke: bakoitzaren lekua eta eginkizuna. Senidetzea, batez ere herriko etxearen gaia da, batetik, ez daiteke erabaki nagusietatik baztertu eta bestetik, senidetze batzordea ez daiteke herriko biltzarren aurka agertu.

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- Konponbidea da, harreman horien sendotzea eta herriko etxea eta senidetze batzordearen arteko **hitzarmen** baten izenpetzea.

SENIDETZE EGITASMOARI BURUZ ARDATZ NAGUSIAK

- Kasu horretan, eginkizunen banaketa horrelakoa izan daiteke:
 - Herriko Etxea = laguntza **logistikoa** (komunikazioa, azpiegitura, txostenak osatzeko laguntza etab.) et sostengu **politikoa** (egitasmoa eta egutegiaren araberako orientabideak) ;
 - Senidetze batzordea = **gogeta, egitasmoen lanketa eta obratzea** herriko etxearekin eta Tolosan sortuko den taldearekin elkarlaneanen (ikus adibideak).

Kontuan hartzekoak diren arrisku faktoreak :

- Urteak senidetzea bazterrean utzia dela = Uztariztarren inplikatzeko eta komunikatzeko beharra.
- Diagnostikoa ez da bururatu bi herrietan.
- Hizkuntzak sortu ditzakeen mugak : senidetze hori euskararen bitartez biziarazi nahi dugu, Tolosan herritarren %80a euskal hiztuna baita eta Uztaritzeko herriko etxeak bere hizkuntza-politikan aurrera pausoak emateko aukera ikusten baitu.
- 2015eko maiatzean herrietako hauteskundeak dira Tolosan, eta ondorioz Tolosako herriko etxean aldaketak gertatzen badira, gure solaskideak ere aldatu daitezke.

Senidetzeak herriaren garapenean ekarri lezakeena... adibide gisa :

- Senidetzearen inguruko egun baten antolaketa;
- Herrien artean, partikatzen ditugun gaikako esperientzia eta gogoeten trukaketa: hirigintza, turismoa, hizkuntza-politika, demokrazioa parte hartzailea, ingurumena etab.
- Euskara : « Mintzanet » egitasmoa, Uztahitzan ekimenaren baitan aurkeztuko dena, AEK, “ mugaz gaindiko irrati” egitasmoa etab;

Senidetzeak herriaren garapenean ekarri lezakeena... adibide gisa :

- Ekonomia :
 - Ofiziale, laborari, enpresa eta merkatarien arteko trukaketak: azokak eta ekoizpen trukaketak etab.
 - UZTA eta TOLOSAN-CO elkarteen arteko trukaketak.
- Turismoa > iragarkiak, bidaiak etab.
- Hezkuntza eta eskolak > ikastetxeen arteko kidetzeak, aisialdi zentroak, etab.

Senidetzeak herriaren garapenean ekarri lezakeena... adibide gisa :

- Kirola > elkarte eta kirol elkarteen arteko trukaketa;
- Kultura > hitzaldiak, herriko liburutegien artean liburu trukaketak, dantza eta musika elkarteen arteko trukaketak (ikastaldiak), erakusketak etab;

Beste eredu batzuen aurkezpena.

« Comité de jumelage » elkartea

- **Ez ohiko biltzar nagusia :**
 - Elkartearen aurkezpen orokorra : Migel HARAN
 - Urteko kontuen aurkezpena : Pierre HAIRA
 - Araudien aldatzea : dokumentuaren erakurketa

« Comité de jumelage » elkartea

- **Biltzar nagusi orokorra** : zuzendaritza berriaren izendapena
 - 2 hautetsi:
 - Maité HARAN
 - Lore ARISTIZABAL
 - Elkarteak :
 - ASCA : LAGRUE andereak et PARALIEU jaunak ordezkaturik
 - LATSA : GARAT jaunak ordezkaturik
 - HERRI SOINU
 - UR BEGI

« Comité de jumelage » elkartea

- ERROBIKO KASKARROTAK
- LAGUNEKIN
- SAINT JOSEPH lizeoa
- BURRUNKA
- UZTARITZEKO SOINULARIAK

– Norbanako kideak (bulegoa) :

- Benat CASTORENE
- Pierre HAIRA
- Isidro BONIFACIO
- Miguel HARAN